

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Vitoria-Gasteizko udalerriko merkataritzaren, zerbitzu pertsonalen eta ostalaritzaren alorreko enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntzen udal programaren 2021eko deialdia finantzatzeko baliabide ekonomikoak handitzeari onespina emateko erabakia

2021eko urriaren 29an egindako bilkuran onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko udalerriko merkataritzaren, zerbitzu pertsonalen eta ostalaritzaren alorreko enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntzen udal programaren 2021eko deialdia finantzatzeko baliabide ekonomikoak handitzeko proposamena. Honela jasotzen da erabaki horretan:

“2020ko abenduaren 11n onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiak arautzeko oinarri orokorrak. 2020ko abenduaren 30eko ALHAOn —148. zk.— argitaratu ziren oinarri horiek.

2021eko apirilaren 9an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko udalerriko merkataritzaren, zerbitzu pertsonalen eta ostalaritzaren alorreko enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntzen deialdi publikoa eta berriazko oinarri arautzaileak —2021. urtea—.

2021eko urriaren 14ean, txosten tekniko bat egin zen, eta Gasteizko udalerriko merkataritzaren, zerbitzu pertsonalen eta ostalaritzaren alorreko enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntzen udal programaren 2021eko deialdiaren zuzkidura ekonomikoa 35.272,50 euroan gehitzea proposatu zen bertan, uste izanenez badirela deialdiaren oinarrietan adierazitako betebeharrak betetzen dituzten hainbat proiektu aurrekontu-zuzkidurarik ezean dirulaguntzarik gabe geratuko lirakeenak.

Txosten tekniko horretan argudiatzen da laguntza-ildo horren onuradun diren enpresa txikiak inbertsio handiak egin dituztela lokalak modernizatu eta ezartzeko, eta, kasu gehienetan, COVID-19aren pandemiaren ondoriozko egoera berriari aurre egiteko inbertsioak izan direla.

Laguntza horien deialdiaren seigarren oinarrian aukera ematen da lehenengo laguntzak ebatzi aurretik deialdiaren zuzkidura handitzeko, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 58. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak kudeatutako deialdietakoren batean soberako krediturik badago.

Bada deialdian hasiera batean aurreikusitakoa baino kreditu handiagorik, egindako hainbat aurrekontu-aldaketaren ondorioz, kreditu hori Gasteizko Udalaren 2021eko ekitaldiko aurrekontu orokorretan sartu ondoren, eta ez dago xede hori duten dirulaguntzak emateko ebazpenik.

Egiaztatu da badela nahikoa zuzkidura egokirik horretarako 2021erako onetsitako udal aurrekontuko 2021.0822.4314.4.8964 partidari atxikita.

Tokiko Gobernu Batzarrak du laguntza-deialdiak eta horietako baldintzak onesteko —eta behar izanez gero aldatzeko— eskumena, beraren egitekoa baita kudeaketa ekonomikoa eta, beraz, Dirulaguntzen Plan Estrategikoa bideratzea, Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 127. artikuluko 1.g) eta 2. ataletan eta Dirulaguntzei buruzko udal ordenantzaren 5.1 artikuluan finkatutakoaren ildotik.

Horrenbestez, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak, legeak aitortzen dizkion eskumenak baliatuz, erabaki-proposamen hau egiten du:

Erabaki-proposamena

Lehena. Tokiko Gobernu Batzarraren 2021eko apirilaren 9ko erabakiaren bitartez onetsitako Gasteizko udalerriko merkataritzaren, zerbitzu pertsonalen eta ostalaritzaren alorreko enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntzen udal programaren 2021eko deialdia finantzatzeko baliabide ekonomikoak 35.272,50 euro handitzea.

Bigarrena. 35.272,50 euroko gastua esleitzea 2021. urterako onetsitako aurrekontuko 2021/0822.4314.4.8964 partidari atxikita dagoen saldo erabilgarriaren kontura.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn eta Udalaren webgunean argitara dadila agintzea, erabakitakoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen jasota utzi ondoren.”

Vitoria-Gasteizen, 2021eko urriaren 29an

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
IGNACIO CEPEDA CRESPO